


MENDIRIZ MENDI

Bokadiloa, makila, krema... eta Pirinioetara!

'Bachimala' eta 'Eristes', 3.000 metroko bi mendi eta 'Ibon del Plan' 5 orduko ibilaldi lasaia. Berrogeita hamarreko koadrila doa.



Holako parajeetara joan
liteke, eguzkiak erreagatik
ere!

MENDIRIZ MENDI Elkar-teak ia hilero antolatzen ditu heldu eta gaztetxoentzako ibilaldiak. "Negu aldean hemen inguruan ibiltzen gara, eta udara garaian, Pirinioetara." Tendeñera (2.853 m.), Castillo de Acher (2.390 m.) edo Pico de las Olas-en (3.002 m.), izan dira. Eta Ernion, Artikutzan eta Larraitzen ere izango dira. Herriko eta kanpoko, autobusa betetzeko adina osatzen dira beti.

54 URTE ETA 500 BAZKIDE

Ez gara ari atzo goizeko kon-tuetaz. Gerra aurretik Herna-niko koadrila bat hasia zen mendi irteerak antolatzen: Joxe Erdozia, Alfontso Troyer, Gregorio Zelaieta... 1946 egin zen mendi elkarte 'Argualas' igota, 3000 metroko mendia igo behar baitzen elkarte onartua izango bazen: Juan Otamendik eta Antonio Agirresarobek badakite hori.

Orain dela lau urte, berriz, elkartearen 50garren urteu-rrena ospatzeko, Argualas bera eta euskal herriko beste 49 mendi igo zituzten. Urtebetean!

IKASTAROAK

Eskiatzen, eskalatzen, kobazu-loetan ibiltzen... ikasi nahi duenak joan eta galdetu beste-rik ez du. Astelehen, ostegun eta ostiraletan egoten dira elkarteak. ☎ 943-332745 ☐



San Tirsorako ibilaldia (1991) Idoia Miner, Mañu Odriozola, Julen Lopez, Jose Migel Olló, Iñaki Sanz, Jose Martin Zabala, Garikoitz Arruarte, Idurre Sanz, Izaskun Baro, Joanes Larretxea, Iurre Salaberria, Leire Imaz, Manolo Aierbe, Larder Fernandez, Arantxa Zuza eta Xabier Santa Kruz.



'TXE' ZUZA Mendiriz mendi

"Normalean, 40-45eko koadrila joaten gara. Bidea dakien bat aurretik eta bes-tea atzetik. Ez dago galdu beldurrik"

Traineru berria bedeinkatu eta arraunlari gaztetxoei omenaldia

Bedeinkazioa Elorrabin da goizeko 11:00etan. 11:30etan, berriz, gaztetxoei omenaldia udaletxean.

ARRAUNA fuerte dabil Hernanin. Eta oraindik hobeto ibiltzeko motibo bat gehiago ere badu: hainbesteko estimazioa duen *amalibia* berria. Traineru "gozoa", da uretan "errezago" joaten dena... Berez, *Txirrita* da *amilia* ez den bakarra, trainerilatakoek eta bateletakoek badakite haren sekretuen berri.

'ELORRABI 1978'

Manuel Osa apaiztu berriak

bedeinkatuko du. Denboraldi ona egiten al dute!

GAZTETXOEK BAI DENBORALDI LATZA!

Aurreko punttan ibili dira: Gipuzkoako Liga irabazi, Euskadiko Kopan bigarren, Espainiakoa ere txukun, joan den igandean Bandera Ar-mintzan... ondo merezitako omenaldia jasoko dute. Gero Elur-Txorin hamaiketako ederra. Zorionak gazteak! ☐

IGERIKETA

Hernaniarrak Gipuzkoako txapelketan

Atsegindegina kotxean sartu eta dozena bat igerilari joango dira gaur eta bihar Ordiziara.

IGERILARIEN denboraldia bukatzeaz da. Gaur eta biharko txapelketak, eta astearteko "Getaria-Zarautz" probak itxi-ko dute aurtengoa. Hernaniarrak ere gogor entrenatu dira puntu-puntu egoteko. Ea bustitako toailaz gain zerbait gehiago ekartzen duten.

GUTXIENGO DENBORAK

Proba hauetan ez da edonorentzat tokirik izaten. "Gutxiengo denborak" eskatzen dituzte; hau da, proba batean eskatutako denbora edo bajuagoa eman izana. Igerilariak forma betean egon behar dute beraz. Hernanin esaterako astelehenetik ostira-lera egunero entrenatzen dira.

GAUR ETA BIHAR ORDIZIAN

Neska mutil hauen sasoia begiz ikusi nahi duenak, ez du oso zaila. Gaur eta bihar, goiz eta arratsalde, Ordiziako polikiroldegian ariko dira ezka-mak irtetzeraino. ☐



JON CASAS Igerilaria

"Bi astez entrenatze-ari utzi ezkerro, bi hilabetetako lana alperrik galtzen da."



HERRIAK - MENDIAK - TURISMOA

HERNANI BIDAIAK

Urbietan, 6

☎ : 943- 33 00 49 / 33 01 74
Faxa: 943 - 33 01 74
20.120 HERNANI



Antziola-Motor


ZERBITZU OFIZIALA

Antziola 12
Tel. 943 55 57 72 - Faxe 943 55 21 96
20120 HERNANI

URBANIZAZIO LANAK

Gabonetarako txukundu ederra hartuko du Sorgintxulok

Bidea berritu, espaloiak eta argiak jarri, ur zikinak eta edangarria bideratu... auzoa arnastu berri baten premian dago nonbait.



Kaleak hankaz gora behar du, gero ondo egongo bada.

HILABETE pasatxo da Sorgintxuloko urbanizazio lanak hasi zirela. Harrotu ederra hartu du zoruak orduz gero!

BIDEA BERRITZEN

Auzoa txikia da baina auto mordoa pilatzen da. Etxe arteko zorua ez dago oso txukun, eta konpontzeari ekin diote. Honekin batera, espaloiak berrituko dira, eta baita argiak jarri ere.

UR ZIKIN ETA EDANGARRIAK

Etxeetako ur zikinen kanalizazioa halamoduzkoa da. Saneatu ederra hartu behar du horregatik! Gainera, euri urak ere ondo bideratuko dituzte. Edangarria nahiko txukun omen dago pasea, eta ikutu

batzuk besterik ez dizkiote emango.

TELEFONOA, RANPAK ETA BESTE

Lurra altxa dutela aprobetxatuz, lurpetik pasako dituzte telefono kableak; portal guztietan ranpak jartzen ari dira ezinduen-tzak, eta futbol zelai ondoko parkea ere

berrituko dute.

SEI HILABETE

Ekainean hasitako lanak sei bat hilabete iraungo omen dute. Gabonetan ospatzeko moduan dira auzotarrak, beraz.

Acuña SA enpresa ari da lanean, eta 60 miloi inguruko aurekontua du guztira. □



Roberto Espinosa eta Goio Irazusta

Sorgintxuloko auzo elkartekoak

“Lanak , agindutako epe-tan bukatzen ari dira”.

“Aurrera begira aparkamentuen arazoa konpontzea komeni da”.

■ JASOTA BEZALA

25-EAN LAN EGINGO DUGU

Datorren uztailaren 25a, gure herriari inposaturiko jai eguna da. Espainiar inperialista ikurra da Santiago, mairu hiltzailea garai batean, egun makilatuagoa, garai hauei dagokien moduan. Eta inposizio honen aurrean Hernaniko hainbat dendarik egun honetan lan egitea erabaki dugu.

Ez gatoz inor behartzera edo eta ordezkatzera. Gure jarrerak pizgarria nahi du izan.

Gure herriaren ukapenaren

aurrean, erabaki hau urrats txiki bat besterik ez da eta egun honetarako lan egiteko deia egiteaz gain, garrantzitsuagoa deritzogu norabide honetan aurrerapausoak emateari. Badira urtean zehar inposaturiko jaiegun gehiago, Frantziar Iraultzaren eguna, Espainiar konstituzioaren ospakizuna edo Pilar eguna kasu, honen aurrean Euskal Herriaren ukapenaren aurka gaudenon artean, indarrak bildu eta antolatu beharko dugu. Eta hauen ordezkotza jaiegunak ere zehaztu beharko ditugu noski. Aurrera ba des-

obedientziaren bidean gure nortasuna aldarrikatzera eta gauzatzera.

Argi utzi nahi dugu jasotako atxikimenduak askoz gehiago izan direla, baina arrazoi desberdinak direla medio ezin izan dute gurekin bat egin oraingoan, datozen datetan parte hartuko duten arren.

Miner Janaridenda, Gorri, Urbieta Kopia, Andreale 35, Axel, Alimentacion Ibañez, Arka, Ghetto Diskak, Gausapa CP Serigrafia.

■ HITZ BITAN



Bota ura, bota ura! ie, ie. Bota ura... eta ezin aspertu.

✓ UDALEKUAK

Udalekuetako umeek “Ur eguna” ospatu zuten atzo. Andre kalean barrena ura eskatuz, eta botatzen zuenari eskertuz jeitxi ziren. Bazen han balde, mangera, txarro eta gainerako. Kuxidade ederra eramango zuten etxera!

✓ PRESOK

Hiru laurden plataformakoak konzentrazio isila egin zuten ostegunean Plaza Berrin. Pakito Lujanbio (atzo kronikan ez genuen zuzen jarri), “Beltza” eta Xabier Arnaizen egoera salatzen du talde honek, kondanaren hiru laurdenak beteak izanagatik espetxeratuak baitaude.

✓ FESTAK

Ereñotzu eta Etxeberriko Jai-batzordeetako partaideek afariak dituzte gaur. Festak amaituta eta kontu guztiak itxita, patxada ederrean jango dute.

✓ TXIRRINDULARITZA

Jubenilek ekipokako erlojupekoa dute bihar Alegin. Ibilbideak 37 kilometro eskas ditu eta ziztu bizian joango dira. Kaikukoak saiatuko dira elkar ondo hartzen.

✓ POLITIKA

Hernaniko Euskal Herritarrok taldeak, gutun baten bidez, gaur arratsaldean iruñean izango den manifestaldira joateko deia luzatzen du. Estatu Espainoleko agintari politikoek Euskal Herriko nazio izaera suntsitzeko erabiltzen duten bidea salatu eta Euskal Herriak bere nazio izaera lantzen jarraituko duela dio idatziak. □

☎ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943464622
943 335533
- Anbulatorioa: 943 557750

✚ FARMAZIAK

- Egunez: **ChucLa**
Kardaberaz, 48
☎ 943551793
- Gauez: **Urbistondo**
Lasarte, San Frantzisko 1, b
☎ 943366567

IRUNE
Estetika

- DEPILAZIOAK
- BETILEAK
- MASAJEAK
- AURPEGIRAKO TRATAMENDUAK
- MAKILAJEA
- MANIKURA
- PEDIKURA
- SOLARIUNA

eta orain...

ZUTIKAKO SOLARIUNA

Kardaberaz, 51-Behea -Tlf. 943 55 71 13 -20120 HERNANI